

Biografietan ere ohikoa da esaldi bakar batean pertsonaren informazio ugari ematea.

4 Lotu esaldi hauek bakar batean, lehenengoa *erlatibozko* bihurtuz ematen zaizun erlatibozko partikula erabiliz:

1. 1974an, Mikel Laboak Artze anaiekin eta Josema Zabalorekin beste disko bat kaleratu zuen. "Bat Hiru" izena zuen diskoak.

1974an, Mikel Laboak Artze anaiekin eta Josema Zabalorekin kaleratutako diskoak "Bat Hiru" izena zuen.

2. 2001eko Mediterraneoko Jokoetan brontzezko domina irabazi zuen eta 2007ko Mundialean 5. postua lortu zuen. Horiek dira Maider Undaren saririk aipagarrienak.

.....-tako/-dako
.....-tako/-dako

3. 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetan brontzezko domina lortu zuen. Kirolariaren ibilbidean, sari horrek izan zuen oihartzun handien.

.....-tako/-dako

4. Aktoreak 2014an antzezlan bikaina egin zuen. Horren ondorioz, beste pelikula batean hartu zuen parte.

.....-tako/-dako

5. 2015eko azaroan Oskorrik kontzertua eman zuen. Kontzertu hura izan zen Oskorriren azkenekoa.

.....-tako/-dako

➔ BESTEEK DIOTENA NOLA ADIERAZI

Berriak edo gertaerak kontatzean, sinesgarritasun handiagoa emateko, protagonisten adierazpenak aipatzen dira. Adierazpen horiek hitzez hitz (komatxo artean), edo zeharka jaso daitezke, hainbat hizkuntza-baliabide erabiliz: *sindikatuak diotenez, azken berrien arabera, grebak jarraitu egingo duela diote...*

5 Berridatzi esaldi hauek, ematen zaizun egitura erabiliz eta egin behar diren aldaketak eginez:

1. Esaten dutenaren arabera, Whatsappa da komunikatzeko daukagun tresnarik ohikoena.

Esaten dutenez, Whatsappa bihurtu da komunikatzeko daukagun tresnarik ohikoena.

2. Azken berriek diote ehunka pertsona hil direla Mediterraneo itsasoan itota.

.....-(r)en arabera,

3. Istripuko lekukoek jakinarazi zuten, bi izan ziren trenbidetik irten ziren bagoiak; lehenengo biak, hain zuzen.

..... esanetan,

4. EUSTATEk kaleratutako datuek diotenez, Euskal Herrian langabezia tasa soilik 0,1 puntu jaitsi da azken hiru hilabeteetan.

.....-(r)en arabera,